


INFLAZIOA

Inflazioa %2,9ra igo zen azaroan

KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



Euskadiko KPI indizeak %2,9ko balioarekin amaitu zuen azaroa, aurreko hilabetearen aldean sei hamarren igo ondoren. Gorakada hori, azken aldietan bezala, elektrizitatearen eta erregaien prezioek izan zuten garestitzeak eragin zuen batez ere.


KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak

	2022	2023	2024ko azaroa	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	8,0	3,6	2,9	2,9
Azpiko inflazioa (%84,6)	5,1	6,2	2,8	2,4
- Elikagai landuak (%15,4)	10,2	12,5	4,0	0,6
- Industria ondasunak (%20,2)	4,7	4,7	0,9	0,2
- Zerbitzuak (%49,0)	3,3	4,3	3,3	1,6
Hondar inflazioa (%15,4)	19,5	-6,4	3,1	0,5
- Landu gabeko janariak (%6,5)	10,8	7,3	1,5	0,1
- Energia (%8,9)	26,6	-17,0	4,2	0,4

AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa




HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa




ELIKAGAIEN PREZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



ZERBITZUEN PREZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



Hori horrela izanda, inflazioa %2tik behera ere kokatu ondoren, aurreko hilean hasitako goranzko joera berretsi zen, elektrizitatearen eta erregaien prezioekin sortutako oinarrizko efektuaren ondorioz. Batez ere argindarraren handizkako merkatuaren batez besteko prezioaren bilakaera nabarmentzen da. Hain zuzen ere, 104,4 euro MWh-koa izan zen, urte osoko erregistrorik handiena, eta iazko hilabete bereko

63,4 euroak baino askoz garestiagoa. Beste aldetik, elikagaien normalizazio prozesuarekin jarraitu zuten, %1,7an kokatu baitziren, inflazio orokorraren azpitik geratuz eta 2023ko otsailean lortutako %16,6ko maximotik urrun. Azkenik, zerbitzuek, nahiz eta oraindik erregistro altuak eduki eskari turistiko handi baten ondorioz, urte hasierakoak baino tasa apalagoak erregistratu zituzten.

KPI TALDE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasa. 2024ko azaroa

	Euskadi	Espania	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	2,9	2,4	2,2
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	3,0	1,7	2,0
Edari alkoholdunak eta tabakoa	4,5	3,6	5,5
Jantziak eta oinetakoak	0,9	0,2	1,4
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	8,3	7,4	2,7
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	1,2	0,5	-0,1
Osasuna	2,8	1,9	3,3
Garraioa	-0,7	-1,0	-0,1
Komunikazioak	0,1	0,0	-3,1
Aisia eta kultura	2,4	2,0	2,2
Hezkuntza	2,4	2,5	4,1
Jatetxeak eta hotelak	3,6	4,2	4,4
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	3,6	3,4	4,5

Iturria: INE eta Eurostat